

Berriketan


Debako herri aldizkaria

280. alea - 2023ko urtarrila




Debako Odol Emaileak

Tantaz tanta batu beharreko urre gorria



**URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA**

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

Calbeton



JATETXEA

**Agustín
Larrañaga Elorza**

**Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan**

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)



SUURTE

**BURU - ZURI
Taberna**

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA

Arteondo
Autobusak S.L.

arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com



LAMARIANO
Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba
943 19 12 52



**L&K
Home**

Higiezin zerbitzua • Inmobiliaria
688763289 • inmolhome@gmail.com



SANTIAGO GARCIA ORDOÑEZ
Abokatu eta ekonomialari elkartuak
Zerbitzu juridikoak
670 411 444
centrolegal@sgoabogados.eus

BOHÈM
BOUTIQUE

LERSUNDI KALEA 25 - DEBA
T 608 135 775
E MAITE. BOHEM@GMAIL.COM

f i



ARENA BAR



Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843

Torrealday

**AHOLKULARITZA
LIDERRA,
TOKIKO
ARIMAREKIN**

ZERGA, LAN ETA
KONTABILITATE
AHOLKULARITZA

ONDARROA - 94 683 29 75
ERMUA - 94 317 44 35
Eta beste herri batzuetan.
www.torrealday.es

Berriketan .eus

albisteak iritziak agenda mediateka



AURKIBIDEA



ALBISTEA | 5

Alaitz Melgar bizkaitarrak irabazi du Tene Mujika beka



ELKARRIZKETA | 7

Arrano Elkarteko bazkideekin solasean, 40. urtemugan



ERREPORTAJEA | 10

Odol emaileen beharra gogora ekarri dute Debako odol emaileek



ELKARRIZKETA | 14

Kultur Elkartean emango duen kontzertuaz jardun da Mikel Urdangarin



ERREPORTAJEA | 16

Izan Iñurri elkarteko kideekin solasean, minbizia hizpide hartuta (DKT)

Berriketan

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83 / 632 043 322

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com



Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte. Deba.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Erredakzioa: Izaro Aulestiarte, Nerea Bedialauneta eta Alex Turrillas

Hizkuntza ardura: Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Debako Odol Emaileen Elkarte

Publizitatea: Joseba Escudero eta Alex Turrillas

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua

Maketazioa: Leire Rubio

Tirada: 1.400 ale

Maiztasuna: Hilabetekaria

Lege gordailua: SS-246-200

Inprimategia: Gertu

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

LAGUNTZAILEAK:



DEBAKO UDALA



Hizkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Informatika
Tresneria
informatikoa



Elektronika
Osagai
elektronikoak

Informatika JLC Elektronika
Maxpe kalea, 7 - behea | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83
Faxa: 943 19 18 36
Mugikorra: 686 939 601

informatikajlc@informatikajlc.com



etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Arakistain plaza, 2 behea - DEBA
Tel: 943 19 22 63
www.atarideba.com



ierenea
ekodenda

"maite ditut nire/gure basterrak"

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA
Telf: 943 53 95 20- E-mail: ierenea@gmail.com




Sukalde eta etxe altzarien erakusketa izugarria 3000m²

Itziaroko gaina
T.: 943 19 91 00 - F.: 943 19 91 01
ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)
endaneta@mueblesendaneta.com
www.mueblesendaneta.com




ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartzan ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA



IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali berriketan@zuhatza.com helbidera.

U28: Enpresarien eta agintarien erasoaldiaren aurrean, gazte langileok borrokara!

Krisian dagoen kapitalismoa ziklo ekonomiko berri batean sartu da, pobrezia eta eskubideen ezabapenak ezaugarritzen duten ziklo batean. Agerikoa da langileon bizi baldintzak geroz eta okerragoak direla, zentzu ekonomikoan zein politikoan.

Gazte langileoi modu argian eragiten digu egoera honek, eta honen ondorioak egunerokoan ikus ditzakegu: lan baldintza prekarioak, diru laguntzekiko dependentzia, aisialdiaz gozatzeko ezintasuna, bortizkeriaren gorakada,

kriminalizazioa eta abar luze bat. Gazteok etorkizuna garela esaten diguten horiek oso ondo dakite hala dela eta, horregatik, bizi eredu txiro eta autoritarioa gazte belaunaldien eguneroko bilakatzen dute, etorkizunean ere hala izan dadin.

Egoera honen aurrean, gazte langileon arteko batasun politikoa sustatu eta enpresari handien eta agintarien erasoaldiari aurre egitea dagokigu. Horregatik, urtarrilaren 28an manifestazioak egingo ditugu Bilbon eta

Iruñean. Mobilizazio batek ez du enpresarien erasoaldia geldituko, baina gazteon arteko antolakuntza eta borrokarako grina hedatu behar dugu, eta GKSn, gazte langileontzako erreminta bat garen heinean, helburu horiekin konprometituta gaude.

Enpresarien eta agintarien erasoaldiaren aurrean, gazte langileok borrokara!

Urtarrilaren 28an, mobilizatu!

Deba Bailarako

Gazte Koordinadora Sozialista

iritzia

Miraz

Lerro hauek irakurtzen dituzunera, urte berriari dagokion martxa berriarekin hasita egongo zara. Erabat murgilduta urte berriari jarri dizkiozun helburuen garapenean. Urte zaharra atzean utzi eta, bide batez, berriz gogoratu nahi ez dituzun hainbat gauza ziurrenik. Aurrez aurre begiratu nahi izaten diegu hasiera berriei; oraingoan bai, zirriborroz betetako koaderno zaharra zakarretara botatzen den bezala, orri zuriz betarik dagoen berriarekin ordezkatzeko.

Amaiera bat hasiera berri baterako.

Urte baten amaiera eta berri baten hasiera gau batek banatzen ditu edo, hobe esanda, gau batek lotzen ditu. Gau soil batek. Abendu amaierara bideratzen garenean, gero eta luzeagoa den gau horietako batek. Iragan diren eta etorri-

ko diren gauen antzeko beste gau batek. Baina gau hori berezi bihurtzen dugu, amaiera eta hasieraren arteko gaua baita. Egun berriari ere, urte berriari bezala, miraz begiratzen diogu, iragan den eguna zein urtea atzean uzteko gogoz.


Urte berri bat hasten den bakoitzean nik ere miraz begiratzen diot. Azken urteetan, ordea, atzean uzten dudan urteari ere miraz begiratzen diot. Asko izan ohi baitut eskertzeko. Urteari, familiari, esperientziei, egunei, pasarteei eta bereziki ingurukoei. Urteko azken eguna eta berri baten lehen eguna lotzen dituen gau horretan eskertza izaten dut lolagun.

Lerro hauek irakurtzen dituzunera, urtea amaitu da eta berria hasi dugu, aurtan bereziki miraz begiratzen diodan



GOIZANE AIZPURUA

urte berri bat. Eta ziurrenik lerro hauek irakurtzen zauden horri eskerrak ere eman behar dizkizut, zuk jakin gabe iazko momenturen batean aurtengo urteari miraz begiratzeko arrazoietako bat izan zarelako, ziurrenik.



A. Esnaola
P. Echeverria

Hortz klinika Clínica dental

Fermin Calbeton 19-3 ezk. EIBAR
943 20 72 17 - 660 422 808

@pyadent

LABATAI
taberna

GOSARIAK GOIZEKO
06:00 ETATIK AURRERA

PINTXOAK, OGITARTEKOAK
ETA PLATER KONBINATUAK,
EGUN OSOAN ZEHAH



Alaitz Melgar Agirrek irabazi du XVII. Tene Mujika beka



Arg.: Goio Ramos

Azken beka deialdira aurkeztu diren proiektu guztien artean Alaitz Melgarrena onena dela ebatzi du Idurre Eskisabelek, Imanol Muruak eta Cira Crespok osatutako epaimahaiak. Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatutako Tene Mujika beka Euskal Herriko historia hurbila ikertzeko proiektuak saritzen ditu, fikziozkoak ez direnak, eta, egileak azaldu duenez, bere amona zenaren bizitza ikertzeko baliatuko du beka. Urtebeteko epea izango du lana burutzeko, gero liburu gisa kaleratu dadin.

Egileak argitaratuko duen lehen liburua izango da honakoa eta, zehaztu duenez, Josefa Agirre Etxeberriaren bizitzan sakontzeko aukera izango du bekari esker. Agirre 1927an jaio zen Azpeitian eta, garaiko etxe txiroetako neska asko bezala, neskame joan behar

izan zuen gaztetxo zela; "Donostian etxea zuten espainiar aristokrata batzuen etxera joan zen neskame".

Garai hartako euskal emakume askok partekatutako ohiko bizipenak izan ziren irabazlearen amonarenak, baina istorioak ezohiko osagaiak ere badituela jakitera eman dute: besteak beste, Ingalaterrara lanera joana, ezkondu gabe haurdun geratzea eta, buru osasuneko gorabeherak tarteko, psikiatrikoan ere egin zituen bolada batzuk. Bere partikularrean balio unibertsala ere hartu nahi duen ikerlanari esker, "isilpean" geratzen diren istorio horietako bat argitara ekartzea lortu nahi du egileak.

Alaitz Melgar Agirre 1984an jaio zen Barakaldon eta Ingeles Filologiako grada eta Berdintasun Masterra ikasitako da. Egun, irakaslea da Iralen.

Zabalik dago Debako Helduen Eskolan matrikulazioa egiteko epea

Urtarrilaren 23tik otsailaren 3ra bitartean egongo da zabalik Debako Helduen Heziketa Iraunkorreko (HHI) zentroan izena emateko epea. Eskolako kideek jakinarazi dutenez, gaztelaniaz honako ikasgaiak izango dira aukeran datozen hilabeteotan: Alfabetatzea, Matematika, Natura-Zientziak eta Gizarte-Zientziak (Debatziarko Historia, inklusio bideak...). Euskaraz, berriz, Euskararen hastapenak izango dituzte ikasgai.

Helduen Eskolako ikastaroei buruzko informazio gehiagorako edota izena emateko, herritarrek Astillero kaleko 4. zenbakiko zentrorra jo dezakete zuzenean, 14:00etatik 17:00etara. Ondoko telefono zenbakiak ere jarri dituzte interesdunen eskura: 943 19 21 76 eta 673 118 181.





ASKETA, S.L.

ERAKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
 Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
 E-mail: asketa@telefonica.net
 www.asketa.net

ALMACÉN:
 Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
 20850 MENDARO (Gipuzkoa)



KALITATEA
 Empresa Registrada Nº 21/05/049
NIVEL 2

Maitena Arrizabalaga Deba Kolegiatu zk. 20.000.975

Odontologoa

maitena

HORTZ KLINIKA

Tel. 943 83 04 24 Gipuzkoa kalea 28-3ºesk, Zarautz



www.aukera-inmobiliaria.com

Aukerarik onena!

943 12 13 95  447



 Nº. 379

SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Higiezin Zerbiztuak
 Aholkularitza
 Higiezin Agentzia
 Komunitateen administrazioa
 Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo Tel.: 943 192 471
 Apartado 3 Tel./Fax: 943 192 303
 20820 DEBA urlo@urlosi.net

Liburu artean

Estibaliz Beltran de Heredia

Ostolaza Udal Liburutegiko arduraduna

Urtarrilaren 25ean eman diogu hasiera Ostolaza Udal Liburutegiko 2023ko Irakurketa Klubari. 2018ko udazkenean abiatu genuen egitasmoa eta hurrengo urteetan ere izan zuen jarraipena, baina 2020an eta 2021ean ezin izan genituen saio guztiak egin, osasun-pandemiaren ondorioz. Iaz, nolana ere, aurrera egin genuen Irakurketa Klubarekin eta aurreikusitako hamar saioak egin genituen, arazorik gabe.

Irakurketa Klubak oso harrera ona dauka Deban. Bi talde daude, euskarazkoa bata eta gaztelaniazkoa bestea. 2020az geroztik, Asier Serranok eta Ainhoa Aldazabalek gidatzen dituzte saioak, arrakasta handiz. Eibartarrak dira bi dinamizatzaileak; Asier Serrano idazle, kantugile eta irakasleak euskaraz egiten diren saioak dinamizatzen ditu eta Ainhoa Aldazabal euskal filologoa, literatur feministan aditua eta Skolastika Literatur Zerbitzuetako kideak, berriz, gaztelaniaz egiten direnak gidatzen ditu.

Orokorrean, esan genezake gaztelaniazko taldea egonkortuta dagoela; iaz, hamabi lagunek parte hartu zuten, batez beste, saio bakoitzean. Euskarazko saioei dagokienean, berriz, egunaren arabera, hasiera batean 8, 9 edo 12

partaide etortzen ziren hitzorduetara, baina iaz gehenez ere 6 lagun elkartu ziren, eta ez saio guztietan. Ea aurten herritar gehiago animatzen diren parte hartzera.

Irakurketa Kluba doako jarduera da eta irakurtzeko zaletasuna duen edonorentzat zabalik dago; saioak 16 urtetik gorakoentzat daude gomendatuta. Klubeko saioen bitartez, partaideek aukera izaten dute idazle eta estilo desberdinak ezagutzeko, baita iritziak taldean partekatze-ko ere.

Urtean hamar saio programatu dira guztira; urtariletik ekainera bitartean egingo dira horietako sei, eta udazkenean gainontzeko laurak. Saio guztiak 19:00etatik 20:30era bitartean izaten dira.

Klubean parte hartzeko interesa dutenek alde zurretik izena eman beharko dute udal liburutegian, 943 19 25 60 telefono zenbakira deituta edo ostolaza@deba.eus posta elektronikora idatzita.




Irakurketa Kluba 2023



Bar Gloria
(Nerea Ibarzabal)
Sus a, 2022
Urtarrilak 25




El bosque, mi padre
(PaPusza)
Torremozas, 2019
Otsailak 27



Narrazioak
(Joseba Sarrionandia)
Elkar, 2013
Martxoak 29



Tea rooms
(Luisa Carnés)
Hoja de Lata, 2016
Apirilak 25



Solteroen dantzalekuak
(Joxean Agirre)
Elkar, 2022
Maiatzak 31




Las dos ancianas
(Velma Wallis)
Ediciones B, 2022
Ekainak 12




Ilunpeko zelataria
(Alberto Ladron)
Elkar, 2022
Urriak 25



El infinito en un junco
(Irene Vallejo)
Siruela, 2019
Urriak



Arrain hezur bat eztarrian
(Olatz Mitxelena), 2023
Azaroan



La parábola del sembrador
(O. E. Butler). Capitán Swing, 2021. Azaroan

Irati Baroja eta Enrike Martiarena Arrano Elkarteak

“Arrano Elkarteak beti egon da prest ekimen herrikoietan laguntzeko eta haiek bultzatzeko”

Debako Arrano Elkarteak 40 urteko ibilbidea betetzen du aurten eta ekimen ezberdinez osatutako programazioa antolatu du ospakizunaren bueltan; urtarrilean eman diete hasiera jardueri eta maiatzeraren bitartean bestelako bost bat ekimen iragarri dituzte. Urtemuga aitzakia hartuta, Enrike Martiarena eta Irati Baroja elkarteak kideekin aritu gara *Berriketan*; orain 40 urte “ilusioz” sortu zuten elkarteak orain arte egindako bidez eta egungo egoeraz jardun gara.



Enrike, urte luzez izan zara elkarteak kide. Zer nolatan hurbildu zinen bertara?

Enrike Martiarena (E.M.): Sortu genuenetik naiz bazkide, duela 40 urte. HB aurrera eramateko elkargune bat behar genuen bilerak, kanpainak, hitzaldiak eta abar antolatzeko. Eta hori dela eta gerturatu nintzen; urte pila bat dira, bai.

Zure kasuan, Irati, bazkide berria zara. Noiz eta nolatan animatu zinen?

Irati Baroja (I.B.): 2020an, hainbat lagunekin batera bazkide egiteko aukera sortu zitzaigun eta emakume gazte bezala elkarte gastronomiko honi nire ekarpena egin niezaiokeela pentsatu nuen.

Urteotan zer izan da zuentzat Arrano? Zer lotura duzue elkartearekin, edo zer eskaini dizue?

(E.M.): Beharrezko gune bat izan da, aukera politiko bat gorpuzteko. Balio izan digu lasaitasunez biltzeko, egoera politikoaz aztertzeko, antolatzeko eta, azken finean, gure proiektua aurrera eramateko.

(I.B.): Bazkide izan aurretik ere gertutik bizi nuen elkarteak. Askotan izana nintzen bazkari-afari bueltetan, eta askotan egin izan ditugu bertan parte izan naizen eragileen ekintzak ere.

Zein da elkarteak herriari egin dion edota gaur egun egiten dion ekarpena?

(E.M.): Arrano Elkarteak beti egon da

prest ekimen herrikoietan laguntzeko eta haiek bultzatzeko. Bertan antolatutako ekintzak irekiak izaten dira edozein herritarrek parte hartzeko.

Zertan bereizten da Arrano herriko bestelako elkarte gastronomikoetatik?

(I.B.): Lehenik eta behin, esango nuke Arranok hasieratik ireki zizkigula ateak emakumeoi; ez zuten inongo baldintzarik ipini, ez bazkide izateko, ez sukaldetan egiteko, ezta bertan antolatzeko diren ekimenetan parte hartzeko ere. Eta hori bereizgarri garrantzitsua da beste elkarte gastronomikoekin alderatuta. Bestalde, herri mugimenduetako eragileentzat ere ateak irekita izan dituela esango nuke, nahiz eta bazkide ez izan; Gaztetxea, talde feminista, eta abar.

80 bazkide ditu gaur egun Arranok. Zertan oinarritzen da elkartearen jarduna?

(I.B.): Elkarte kultural bat da sorreratik eta jardun nagusia bilgune izatea da, elkartzeko espazio bat eskaini izan du beti, eta hori Euskal Herrian sukaldetaren bueltan izan ohi da. Bestalde, urtero zuzendaritza batzordeak ekimen ezberdinak antolatzen ditu eta ohikoak izaten dira mus txapelketa, bertso afaria eta mendi edo kultur irteeraren bat. Dena den, zuzendaritza batzordearen arabera-koak dira jarduerak. Beste elkarteekin batera, Debarren Egunean, adibidez, plazan salda eta txorizoa ematen da, eta

Arrano Elkartearen bazkaltzen dute erraldoien talde guztiak.

Zeintzuk izan dira 40 urteotan elkarteak bizi izan dituen unerik latzenak? Eta zeintzuk goxo edo politenak?

(E.M.): Espainiako epaileek egoera zail batean jarri zuten gure elkarteak, legez kanpo kokatu gintuztenean. Egoera horrek bere horretan jarraitzen du eta momentuan indefinizio puntu batean gaude, edozein momentutan elkarteak Estatuaren esku ipintzeko. Dena dela, gure aukera politikoa aurrera egiten ikusitakoak poztzen gaitu. Ikusten ari gara egindako lana ez dela alferrikakoa izan.

Zertan da uneotan 35/02 sumarioa edo Herriko tabernen auzia bezala eza-gutzen den prozesu judiziala?

(E.M.): Orain bertan, eta daukagun informazioaren arabera, geldirik dago gaia, ez dakigu ezer. Lokala berez Estatuarena da, enbargatua dago, baina ez dago exekutatuta; beraz, bertan jarraitzen dugu. Egia da egoera ez dela batere eroso, inbertsio bat edo egiturazko zerbait egiteko ziurgabetasun egoeran gaudelako, baina gure martxarekin jarraituko dugu, eta *Arrano libre!* aldarrikatuz.

(I.B.): Juridikoki ez gaude egoera onean, ez, baina elkarteak aurrera jarraitzen du bere dinamikarekin. Bazkideok argi dugu “gure txokoa” dela eta bere alde borrokatuko dugu.

Diego Mendoza Debanatura elkarteko presidentea

“Gurean ere ingurunea zaintzeko kultura zibiko bat sortu eta zabaldu nahi dugu”

2007. urtean sortu zen Debanatura Ingurumen Heziketa elkarte. Harrezkero, askotariko jarduerak egin izan ditu ibilbide honetan eta horretan dihardu oraindik ere, betiere ingurumenarekiko sentsibilizazioa sustatu nahian. Bide horretan jaio da, hain justu, Ekin Berdea proiektua. Elkarteko presidente Diego Mendozak azaldu ditu haren nondik norakoak ondoko solasaldian; biologoa eta ingurumen hezitzailea da Mendoza, eta Tokiko Agendako teknikari lanean dihardu gaur egun Mungiako Udalean.

Ekin Berdea egitasmo aitzindarian buru-belarri sartuta zabilta aspaldidanik. Zertan oinarritzen da proiektua?


Proiektu honen bitartez herritarrak ingurumenaren hobekuntzan parte hartzera bultzatu nahi ditugu. Horretarako, besteak beste, zaborra bildu, landare inbaditzaileak deuseztatu, bertako zuhaitzak landatu edota berdeguneak sortzea bezalako ekintzak proposatuko ditugu. Azken finean, inguruko paraje eta txoko naturalak zainduz herria edertzea da helburua eta, bide batez, Debako ondare naturala ezagutarazi eta haren garrantzia azpimarratzea.

Bide horretan, zer egingo duzue?

Hainbat gune natural hobetzeko esku-hartzeak egingo ditugu, basoa lehengoratzeko asmoz bereziki, baita lorezaintza ekologikoarekin lotutako jarduerak ere. Pixkanaka, elkarlanerako berdegune txikien sare bat sortu nahi dugu herria eta ingurunea edertzeko eta naturarekiko eta geure buruarekiko lotura ahalbidetzeko. Ariketa fisikoa, ikaskuntza teoriko-praktikoa, lurrarekiko kontaktua eta harreman pertsonal positiboak dira Ekin Berdearen proposamena osatzen duten elementuak; proiektu aitzindaria da tokiko eskalan, berdeguneetan eta ingurune naturalean garapen iraunkorra lortzeko balioko duena.

Ingurune naturala zaintzea da, hortaz, helburu nagusietako bat...

Debak ingurune natural benetan pribilegiatua du eta, oro har, guztiok gara horren jakitun eta zorte handia dugu. Arno eta Andutz mendietatik hasita (artadi, belardi eta eremu harritsuekin), marearteko zabalgunea, flysch-a eta biotopoa dituen kostalderaino, itsasadarretik eta bertako paduretatik eta gertuko



paraje berdeetatik igaroz (Ozioko erreka eta bere basotxo)... nabarmena da paisaien eta habitaten aniztasuna. Hala ere, badira zenbait arazo.

“Ekin Berdearen filosofia Erresuma Batuko Green Gym proiektuan oinarritzen da”

Zer arazo?

Naturan utzitako hondakinak, batez ere itsasertzean, landare inbaditzaile batzuen hedapen kezkarria itsasadarrean, baso autoktonoen presentzia urria... Horrek bultzatzen eta motibatzen gaitu aspaldidanik halako proiektuak sustatzera. Gainera, beste herrialde batzuetan bezala, gurean ere ingurunea zaintzeko kultura zibiko bat sortu eta

zabaldu nahi dugu, eta elkarlanean berdeguneak sortzea, hau da, auzolana egitea proposamen polita dela uste dugu. Ekin Berdearen filosofia Erresuma Batuko Green Gym proiektuan oinarritzen da. Proiektu hura osasuna sustatzen eta gaixotasunak prebenitzen aditua den William Bird doktoreak bultzatu zuen, *The Conservation Volunteers* proiektuarekin batera.

Egitasmoa, besteak beste, Debako itsasadarreko ibaiertzeko landaredia eta zuhaitzak babesteko jaio da. Zer berezitasun dute landaredi eta zuhaitz horiek?

Gaur egun, Aldundiak Deba Zumaiako kostaldeko biotopoen dituen lurrez gain (itsas-lehorreko jabari publikoak dira), Deba ibaiaren ertzak dira udalerrian titulartasun publikoko naturgune bakarrak, landaredi nahiko naturalarekin. Bertan, bereizgarriena milazkek (*Tamarix gallica*) osatzen duten orla da.

Ibaiertzetako berezko landareek betetzen dituzten funtzioak honako

hauek lirateke: ibaiertzaren lurra egonkortzen dute uraren higadura efektua gutxituz eta uholdeen ondorioak ekidinez; ibaiaren tenperatura eta argia doitzen dute, uretan bizitza ahalbidetuz; animalia espezie askoren hazkuntza eta atsedean lekua, babesa eta bizileku dira; lur azpiko urak eta ur freatikoa arazten dituzte, eta aldaketa klimatikoaren eraginez ematen den itsasoaren mailaren hazkuntzaren ondorioen aurkako borrokan oinarritzko papera jokatzen dute; hori dela eta, beharrezkoa da estuarioetako ibai-ekosistemen berreskurapena, itsasoaren aurrerakadaren aurrean oztupo naturalak sortu asmoz.

“Libera proiektuaren parte izateak Estatu mailan kokatzen du Ekin Berdea projektua”

Horiek babesteak zer onura ekarriko ditu, oro har? Eta ez badira babesten, zer kalte eragin ditzake?

Gaur egun Deba ibaian ditugun mehatxu nagusiak hondakinak, espezie inbaditzaileak eta ibai basoaren egoera ahula lirateke. Arazo horiei ez badiegu behingoz aurre egiten, bertako biodibertsitatearen galera eta gure ingurugiroaren osasuna kaltetzea eragin dezake.

Halako garrantzia izanda, behar beste babesten eta zaintzen al dira?

Nire iritziz, ez. 2008tik hainbat proiektu izan ditugu landare inbaditzaileekin dugun arazoari aurre egiteko. Orokorrean, ibaiak eta berezko ekosistemek duten garrantziaz eta eskaintzen dizkiguten zerbitzuez oso gutxi jabetzen gara. Deba ibaiarekiko dugun zorra itzultzeko garaia da.

Proiektua, gainera, Seo-Birdlife eta Ecoembesek bultzatutako Libera proiektuaren artean hautatua izan da. Zer garrantzia du horrek proiektuari babesa emateko orduan?

Ekin Berdea SEO-BirdLife eta

Ecoembes erakundeek bultzatutako Libera proiektuaren 2022ko deialdira aurkeztu da. Proiektu horren helburu nagusia da naturan lagatzen diren hondakinen arazoari buruzko kontzientzia sortzea, *Basuraleza* deritzona. Horrela, bilketa eta garbiketarako jardunaldiak ere egingo dira ingurumen-boluntariotzaren bidez, herritarren parte-hartzearekin, ingurumenarekiko sentsibilizazioa lantzeko beste jarduerak batzuekin batera. Euskadin bi proiektu besterik ez dituzte hautatu. Libera proiektuaren parte izateak Estatu mailan kokatzen du Ekin Berdea projektua eta Euskadin egiten ari garenaz jakingo da.

Uneotan zenbat eragile ari dira proiektuan parte hartzen? Nola doa lankidetzaren hori?

SEO-BirdLife erakunde kontserbazionistaren eta Ecoembesen laguntzaz gain, Danobat-en kolaborazioa daukagu momentuz. Debako Udalean proiektua aurkeztu dugun arren, ez dugu haren babesa lortu. Bestalde, Mendata BHI ikastetxeak parte hartzea lortu dugu. Herriko eragile desberdinen parte-hartze aktiboa lortzea espero dugu, denon artean Debako inguru eta txoko naturalak edertu eta herri jasangarriago bat lortzeko.

Zeintzuk izango dira hurrengo urratsak edo jarduerak?

Ekimen ezberdinak egingo ditugu datozen aste eta hilabeteotan, hala nola proiektuaren aurkezpenak, loregintza ekologikoari buruzko Ekin Berdea ikastaroa helduentzat, ingurumen-boluntariotzako jardunaldiak edota ikasleei zuzendutako ingurumen heziketa eta sentsibilizazio kanpaina. Otsailaren 4an, esate baterako, Ekin Berdearen baitan, jardunaldi bat egingo dugu *Metro karratu bat Deba ibaiaren alde* goiburuean. 11:00etatik aurrera, irteera gidatua egingo dugu itsasadarraren balio naturalak ezagutu eta zaborrak biltzeko. Bide batez, gainera, otsailaren 2an urtero ospatzen den Munduko Hezeguneen Eguna-ekin bat egingo dugu jardunaldiaren bitartez. Ekimenari buruzko informazio gehiagorako edota izena emateko debanatura@hotmail.com helbidera idatzi edo 695 783 656 telefono zenbakira dei dezakete herritarrek.



IGOR LARRAÑAGA

Uriel eta Jerson

Oraingo honetan Uriel eta Jerson izan dira gurera laguntzera etorri diren gazte nikaraguarra eta hondurastarra. Goizeko bostak aldera hartu dute aurreneko autobusa Bilbo aldean gure Teleixa maitera 08:00etarako iristeko. Zortzi orduko lana motozerrari soinua ateraz eta bueltan Ondarroako autobus geltoki batera gerturatu ditut, Bilbo aldera buelta daitezten.

Oraingo honetan ere, hitz erdiak ez dizkiet ulertu ere egin; haiek nik esandakoa, ordea, ederki asko ulertzen zutela konturatu naiz. Espainiera mundu mailan hizkuntza erabilienetakoa izanagatik ere, elkar ulertzeko hamaika arazo eman dizkidala ohartu naiz bazkaltzera geratu garen uanean bertan Urielek pasaporte ateratzeko duen aukeraz hitz egin duenean.

Oraingoan ere Honduras eta Nikaraguako egungo egoeraz galdetu diet, eta bertan gazteen gehiengoak inolako etorkizunik ez duela argi asko azaldu didate. Nik hemen langileak behar ditugula esan diedanean, barre algarra ederrak bota dituzte, haiek langileak baino turistak direla esanez, haien bisatuek dioten bezala. ETBko Gaur Egunean turismo datuak ematen dituzten hurrengo aldia, nik Jerson eta Uriel ere kontatu ote dituzten pentsatuko dut.

Lana lepo egin ondoren haiek izan ziren dirua jaso zutenak, baina garbi daukat ni haiek baino gehiago aberastu nintzela. Errealitatea gure atalaia *progre* eta erosotik ikusteko joera hori zalanztan ipini eta beste baten bizipenetatik entzutea biziki osasuntsua eta aberasgarria da egunerokoan bizi ditugun arazoak arazo diren edo ez erlatibizatzeke.

Gaur zugatik eta bihar negatik, elkartasunez

Odol emaleen elkarteek alarma piztu dute. Aurten ere urtea “nahiko estu” eta erreserba “maila txikiekin” hasi dutela ohartarazi dute eta, beraz, emaleak behar-beharrezkoak direla azpimarratu dute. Jaiak, gripea eta bestelako gaixotasun batzuk tarteko, odola ematera hurbiltzen diren herritarren kopurua txikitu egin da, eta horrek odol eskasia eragin du. Gaiari buruz sakondu nahian, Debako Odol Emaleen Elkarteko kideekin izan gara *Berriketan*.



Ezkerretik eskuinera: Amaia Ajuriagoikoa Alberdi, Arantza Iriondo Urbieta eta Jose Luis Aperribai Etxeberria.

Egunero erabiltzen da odola eta, aurrerapen mediko eta teknologiko handiak egin badira ere, oraingo, ezin da fabrikatu; era altruistan emandako pertsonen esker baino ezin da lortu. Odolaren eta haren osagaien transfusioa ezinbesteko bihurtu da osasun arretan; datuei erreparatuz gero, Araba, Bizkai eta Gipuzkoan bost minutuan behin behar da odola. “Premia etengabea dago eta, beraz, odol ematek ere hala izan behar dute, etenik gabeak”, adierazi du Arantza Iriondo Urbieta Debako Odol Emaleen Elkarteko arduradunak.

Erauzketa bakoitzean, batez beste, 85 pertsonak ematen dute odola Deban eta, datu hori kontuan hartuta, aurtengo erronka ere jarri dute elkarteak: antolatzen duten saio bakoitzean 100 herritarrek odola ematea, alegia. “Azkenean etorri ezin dutelako, gaixotu egin direlako edo medikuak egun horretan odola ezin duela eman erabaki duelako... beharrezkoa ikusten dugu 100 bat laguneko langa hori gainditzea”.

Gabonak, Aste Santua eta udako operaraldi luzeak dauden garaia “nahiko konplikatuak” bihurtzen direla azpima-

rratu du, behar diren odol emate horiek guztiak lortzeko “estu” ibiltzen direla ohartaraziz. Odol talde ia gehienak minimoen azpitik egon dira eta, pixkanaka berreskuratzen ari badira ere, oraindik ez daude euren onenean; urte osoko erreserbak bermatu ahal izateko, dei berezia egin dute tokiko elkartetik. “Beharrezkoa da odola ematea. Herritarrak odola ematearen garrantziaz ohartzea eta horiek ohikotasun batekin odola ematera animatzea da xedea”.

Odola emateak ordu erdi inguruko tartea eskatzen du; ahalegin horri esker, hainbat bizi salbatu daitezke

Iriondoren ustez, “odola ematea planteatu ere egiten ez duten horiengana iristea da” erreserba mailak bermatu ahal izateko “gakoa”, eta oso argi azaldu du jendea gehiago inplikatzeko arrazoia.

“Zuk edo zure familiako beste pertsonaren batek odola beharko duzue noizbait”. Adierazi duenez, tamalez, jende gehiena ez da jabetzen egun dagoen odol eskasiaz.

Urtean hiruzpalau aldiz

Erreserbak bermatzeko, odol mota guztien premia dutela azaldu du Iriondok, baina erabiliena 0 negatibo taldekoa da, emale unibertsalen odol taldekoa. “Larrialdi egoeretan pazientearen odol taldea zein den ezagutzen ez denean, odol mota horren transfusioa egin ohi da”.

Erreserba mailak “behar bezala” bermatzen ez badira, arazoak sor daitezkeela gogorarazi du. “Batzuk ez dira konturatzeko zergatik dagoen odola erreserbetan, eta hori ulertaraztea oso garrantzitsua da”. Horren adibide garbi bat ere eman du: “Hurbileko batek minbizia zeukan, eta egun batean ezin izan zioten tratamendua ipini, egun hartan odol nahikorik ez zegoelako. Esan ziotenez, ospitalean eskuragarri zeukaten odol guztia larrialdietarako gordeta zeukaten. Zorionez, hurrengo egunean jendea odola ematera joan zen eta jarri ahal izan zioten tratamendua, baina egoera larriak izaten dira”.



aipatzen didate askok. Orratzak hasiera batean inpresioa eta beldurra eragin dezake, baina ez da hainbesterako. Ulertzen dut beldurra izatea, baina ez du minik ematen”.

Gakoa: orratzari ez begiratzea

Orratzekin ez beldurtzeko era bakarra orratzari ez begiratzea dela aitortu du Aperribaik. “Beldurrarena aitzakia hutsa da. Zer nolako beharra dagoen eta ahalegin horrekin zer nolako laguntza ematen duten jakingo balute, beldurra alde batera utziko luketela uste dut. Batzuek beldurra sentituko dute, baina horiei ere, behin bada ere, probatzea gomendatuko nieke. Hainbat urte daramatzat odola ematen, eta nire gomendioa da odola ateratzen ari diren besora ez begiratzea; horrekin zora-biatzea saihestuko dute. Nik, egia esan, behin ere ez diot begiratu orratzari; beldurrik ez dit ematen, baina sentsazio arraroa edo inpresio pixka bat eragiten didala aitortu behar dut”, dio irribarre artean. Are gehiago, odola emateak ez duela minik ematen ere gaineratu du. “Zitxada txiki bat igartzten duzu, besterik ez”.

Odol-ateratzeetan herritarren artean sortzen den giroa azpimarratu dute biek ala biek. “Oso giro polita sortzen da; jendea pozik etortzen da, badakigulako norbaitek behar duena jasoko duela”.

Ikerketen arabera, urtean egin daitezkeen odol emate kopuruak honakoak dira: emakumeek hiru eta gizonezkoek lau. Hori bai, emate batetik bestera, bi hilabeteko tartea laga behar da, gutxienez.

Ez da aparteko baldintzarik bete behar odola emateko: konpromiso hori hartzea, 18 eta 65 urte artean izatea, ezinbestean 50 kilo baino gehiago pisatzea eta gaixotasunen batez kutsatu ahal izateko arrisku-praktikarik egin ez izana (sexualak, bidaiak, gaixotasun kutsakorrak dituzten pertsonekin kontaktua izatea...).

Erraza, segurua eta azkarra

Odola ematea erraza, segurua eta azkarra dela nabarmendu dute odol emaleek. Euren esanetan, emaleari ordu erdi inguruko tartea eskatzen dio, eta ahalegin horri esker hiruzpalau bizitza salba daitezkeela azpimarratu dute.

Ematen den odol poltsa bakoitza aztertu egiten da kutsatuta dagoen ala ez ziurtatzeko eta, odola emango duenaren zein jasoko duenaren segurtasunagatik, protokolo zorrotza betetzen da. Lehenik, eta bere historia medikoa osatzeko, osasun elkarriketa bat egingo dio medikuak odola eman nahi duenari. Ostean, tentsioa hartu eta hemoglobina maila aztertzen da eta, dena ondo baldin badago, odola emateko aukera izango du emaleak.

Odola eman ostean, komenigarria izaten da “lasai egotea” eta indarbertzeko “mokadu bat jatea eta hidratatzea”, Iriondoren esanetan. “450 mililitro ematen dira. Emandako gomendioak jarraituta, eta likido asko edanda, azkar berreskuratzen da odol bolumen hori”.

Odola ematera animatzen direnek badakite zer nolako garrantzia duen

elkartasun keinu horrek. Jose Luis Aperribai Etxeberria, esaterako, 18 urterekin etzan zen lehen aldiz odola emateko esku-ohe batean, eta harrezkero ez da odol emaleen mundutik urrundu. Azken 40 urteotan ibilbide luzea egin du: 100 alditan baino gehiagotan eman du odola.

Lagun giroan joan zen lehen erauzketa hartara, eta geroztik ahal izan duen guztietan eman du odola. “Unibertsitate ikasketetan, soldadutzan eta atzerrian ere ibili nintzen lanean eta, tamalez, urte haietan odola oso gutxitan emateko aukera eduki nuen. Gerora, Gipuzkoara itzuli nintzen eta, harrezkero, kuadrillarekin joaten naiz odola ematera. Deialdia kuadrillan zabaltea garrantzitsua dela iruditzen zait. Gu normalean bizpahiru lagun elkartzten gara, eta ondoren zerbait hartzeko geratzen gara”.

Amaia Ajuriagoikoa Alberdik ere 18 urte zituela eman zuen lehen aldiz odola, eta orain artean ez du bere jarduna eten. Gurasoen partetik datorkio konpromisoa eta, keinu horri esker, familia zabalago baten kide bihurtu da. “Txikitatik etxean bizi izan dut hau guztia eta, nire kasuan, oso barneratuta neukan. 18 urte betetzear nengoela hurrengo deialdian ni ere odola ematera hurbilduko nintzela esan nion amari. Pozik jaso zuen albistea”.

Bere inguruko gazteak odola ematera bultzatu nahi izan ditu, baina ez duela arrakasta handirik izan aitortu du. “Kuadrillako lagunak zein ingurukoak animatzen saiatzen naiz, baina, egia esan, ez da lan erraza. Noizbait baten bat etorri izan da, baina, oro har, inor ere ez da animatzen. Ematen ez badute, behar dutenean ez dela nahikoa egongo esaten badiet ere, orratzek beldurra ematen dietela

Hurrengo deialdiak

Odol-ateratzeak hiru hilean behin egiten dituzte Deban. Ostiraletan, 16:30etik 20:30era, Luzaro ikastetxean aritzen dira osasun arloko profesionalak lanean eta, antolakuntza lanak errazte aldera, aurrez hitzordua hartzea ezinbestekoa dela esan dute.

Txandak saioa iragarrita dagoen astearen hasieran hartzen dira, eta jendea deitu ahala ematen diote ordua. 612 402 103 telefono zenbakira deitu edo whatsapp mezuzatuz bidali beharko dute interesdunek izena emateko. “Bakoitzari zer ordu etortzen zaion ondo galdetzen diogu, eta horren arabera ematen ditugu txandak”.

2023rako honako datak iragarri dituzte: otsailak 10, maiatzak 12, abuztuak 4 eta azaroak 10.

Gabonek eta urte amaierak lagatako irudiak

Olentzero eta Mari Domingiren etorrera, haurrei zuzendutako ekintzak eta parkea, musika emanaldiak, aisialdi jarduerak, irteerak, San Silvestre lasterketa herrikoia, Errege Magoen desfilea, Zoro Feria, idi-probak... azken bi urteotan ez bezala, aurten Gabonek eta urteari amaiera edo hasiera emateko jarduerak ohiko irudiak laga dituzte inguruotan. Ekitaldi ugari izan dira herritarren gozamenerako aukeran, usadioari lotutakoak gehienak ere, Debako Udalak eta herriko hainbat eragilek eta norbanakok elkarlanean antolatutako egitarauaren baitan. Irudi hauetan ikus daiteke egindakoaren lagin txiki bat.



Olentzero eta Mari Domingiren etorrera.



Gabonetako haur parkea. Arg.: Ander Salegi.



Debako Musika Bandaren Gabonetako kontzertua.



Umeen San Silvestre lasterketa. Arg.: Deba Xtreme Kirol Taldea.



Helduen San Silvestre lasterketa. Arg.: Deba Xtreme Kirol Taldea.



Kolore Anitzek Bizkaia Park Abenturara egindako irteera.



Gaztelekukoak, Txuri Urdin Izotz Jauregian. Arg.: Gaztelekua.



Urte berriko azoka.



Errege Magoen desfilea.



Urte berriko 45. Idi-probak. Arg.: Ibon Errazu.

Mikel Urdangarin musikaria

“Bizirik eta, mende laurden eta gero, gehien maite dudan honetan segitu ahal izateak poz bikoitza dakarkit”

Mikel Urdangarinen kantaldia izango da Kultur Elkartearen urtarrilaren 27an, 22:00etan, KulturEkin programazioaren baitan. Zornotzan 1971n jaioa, Gasteizen bizi da euskal kantautorea eta oraintsu bete ditu 25 urte musikagintzan. Besteak beste, iaz kaleratu zuen azken diskoa, *Badena eta ez dena*, Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin. Agertokira igotzeko “beti gogoz” egoten dela dio musikariak; aurrez ere egona da Deban, baina, oraingoan, bere “bertsiorik biluziengan” ariko da.

Deban izango zara urtarrilaren 27an. Zer nolako emanaldia izango da?

Bakarrik ariko naiz oraingoan, gitarra eta ahotsa lagun.

2021eko udan ere izan zinen herrian, *Izurdeen lekua* diskoa aurkezten. Formatu aldetik, ordea, ezberdina izango da oraingo honetan emango duzun kontzertua, ezta?

Oso formatu ezberdina izango du, egia esan. Orduan talde osoaren babesarekin aritu nintzen, musikari bikainez inguraturata, oroitza ederra ekartzen didan kontzertuan. Oraingoan nire bertsiorik biluziengan hurbilduko naiz, beste muturrean.

Modu batean zein bestean arituta ere, sarrera guztiak agortu dira orain ere...

Oso berri pozgarria da. Areto betearen aurrean kantatzea beti da goxoa taula gainean gabiltzanontzat.

Agertokira igotzeko gogoz, hortaz?

Beti gogoz. Deban ez da ezberdina izango. Bakarka aritzeak, gainera, ahalegin berezia eskatuko dit eta horrek asko motibatzen nau.

Oraintsu bete dituzu 25 urte musikagintzan. Nola baloratzen duzu mende laurdeneko ibilbide hau, Mikel?

Bizirik egote hutsak pozik jartzen nau. Honez gain, bizirik eta, mende laurden eta gero, gehien maite dudan honetan segitu ahal izateak poz bikoitza dakarkit. Nori kantatu izatea, kantatuak egiteko grina mantentzea... orduko ametsak bizirik dirau gaur egun.

Zeuk esana da “arrakasten eta frakasoen gehiketa” omen gabela... Hortik jaio al da 2022an aurkeztu duzun *Badena eta ez dena* diskoa?

Gure ametsen bila joatearen aldarrria egin dut beti; arriskatzearen alde egin, beldur guztien gainetik, gauzak nahi ez bezala atera daitezkeela onartuz. Ezer irabazi aurretik galtzeko prest egon behar dugu. Eta galtzen dugun hura, lortzen ez dugun hori gure baitan geratzen da, amestu hutsagatik bada ere.

Bilboko Orkestra Sinfonikoa izan duzu bidelagun, bere sorreraren mendeurrenean; zeuk 25 urteko ibilbidea musikan, eta orkestrak berak 100 urtekoa. Hortaz, urteurrenen ospakizunen baitan ikusi du argia diskoak, ezta?

Sekulakoa izan da bi urteurrenak batu ahal izatea, festa eder horretako gonbidatu izatea. Ohore handia.



Zer nolakoa izan da sortze prozesuan orkestra sinfoniko batekin aritzea? Eta zer nolakoa azken emaitza? Pozik diskoarekin?

Lan intentsoa izan da. Bingen Mendizabalek egin dituzte orkestrarako moldaketak eta emaitza bikaina iruditu zait benetan. Fernando Velazquezen eta Koldo Uriarteren bi moldaketa daude Bingenen lanaz gain, beste bi harribitxi kantu sorta kuttunerako. Bestalde, orkestra batekin aritzea oso aukera potentea da gauza eder bat egin ahal izateko; hori bai, aukera hori baliatu beharra dago eta esango nuke horixe egin dugula.

Hamabost abesti biltzen ditu lan berriak; horietatik hamahiru zure kantutegi ezagunaren parte dira... Nola laburbilduko zenuke, hitz gutxitan, diskoa? Zer dakar barruan?

Nire kantutegiaren oso zati txikia dakarren lana da, abesti gehien-gehienak kanpoan geratu dira ezinbestean. Baina disko emozionalki indartsua ikusten dut, tonu ezberdinez josia, paisaia aniztuna... kantuz kantu, hunkidura bilatu dugu. Barrura sakon begiratu dugu festari eta suziriei uko egin gabe.

Disko berria, zuzenekoak... proiektu ezberdinak dituzu eskuen artean. Zer eskatzen diozu urte berriari?

Batez ere, osasuna.

Lasturren aurkeztuko dute *Arnasguneak* antzerki-beka irabazi duen *Intxaurra* antzezlan



Urtarrilaren 28an, Lesakako Mairu Antzerki Tailerrak *Intxaurra* antzezlan aurkeztuko du Lasturren, 22:00etan, *Barruan giro!* egitarauaren baitan. *Intxaurra* antzezlanak harreman estua du euskararen arnasguneekin. Izan ere, Mairu konpainiak *Arnasguneak* antzerki-beka irabazi zuen 2021eko abenduan eta, horri esker, obra sortzeko aukeraz gain, egonaldia egin ahal izan zuten Azpeitiko Dinamo Sormen Gunean, antzerkia lantaldean prestatzeko. Beka hori Uemak, Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak euskararen arnasguneen garrantzia gizarteratzeko helbu-

ruarekin sustatutako Arnasa Gara kanpainaren barnean kokatzen da.

2022ko azaroan estreinatu zuten antzezlan jendaurrean eta, azkenaldian beste hainbat herritan egin bezalaxe, Lasturren aurkeztuko dute oraingoan.

Gaixorik dagoen intxaurrendoa iruditik abiatuta, enborra biziberritzearen beharra islatzen du *Intxaurra* antzezlanak, gainerako adarrek ere osasuntsu iraun dezaten. Horrela, euskararen arnasgune diren herrien ezaugarriak, kezak, mugak, iragana eta etorkizuna agertuko dira istorioan barrena. Mairu Antzerki Tailerreko Gaizka Sarasolak

idatzi du testua, eta Manex Fusch aritu da zuzendaritza lanetan.

Otsailean izango du jarraipena Itziarko Auzo Udalak beste hainbat eragilerekin elkarlanean antolatutako *Barruan giro!* neguko kultur egitarauak.

Hori hala, otsailaren 3an Pirritx, Porrotx eta Marimotots izango dira Itziarren; *Urteak bete, abenturak bizi* ikuskizuna eskainiko dute Zabalsoro frontoian. Egun bat beranduago, otsailaren 4an, Santa eskea ospatuko dute, Santa Ageda bezperan ohiko koplak zaharrak kantatuz, lehengo usadioan. Hilaren 10ean, Aitor Hurgoren kontzertua izango da Burugorri aretoan, 22:00etan (sarrerak egunean bertan salduko dira, hiru euroan). Eta, hilabeteko programazioa amaitzeko, otsailaren 17rako eta 21erako inauterien harira antolatutako ekimenak iragarri dituzte, hala nola merienda, mozerro show-a eta egur-jolasak.



Iturkale 2 behea - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31

Zumardi
pentsioa
* *
Tel.: 688 800 619
info@pensionzumardi.com
www.pensionzumardi.com
f @

ENGLISH SQUARE

SCHOOL OF ENGLISH
INGELES AKADEMIA
Sokagin kalea 12, DEBA
648 268 206
info@english-square.net

IZERBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

ORAIN
ileapaindegia
943 19 21 09
Hondartza kalea, 2
Deba

Inurrien besarkada bizitzari

Ainara Argoitia (Debabarreneko Komunikazio Taldea)

JORDINA ARNAU ROIG ETA MARI SEARA EIZAGIRRE IZAN IÑURRI

Bularreko minbiziaren ikurra arrosa koloreko xingola izan arren, argi diote *pink* baino *punk* direla gehiago, minbizia, zerbait bada, marroia delako, "marroi handia". Minbizia diagnostikatu zieten Mari Seara Eizagirre (Deba, 1972) eta Jordina Arnau Roigi (Selva del Camp, Katalunia, 1991), eta askotan sentitu dira itolarrian beraiek ere, baina halakoetan, burua altxatu eta bizitza besarkatzea erabaki dute, "hasierako desesperazioan ezin delako bizi". Horregatik batu dira Izan Iñurrira, minbiziaren gaia eta haren inguruko tabuak ikuspegi feminista eta eraldatzailetik lantzeko Lasarte-Orian sortu zuten elkartera. Izan Iñurriren izatea zabaldu nahi dute orain Debabarrenean ere, inurri tribuaren indarra ezinbesteko ikusten dutelako minbiziaren kontrako borrokan.



Minbiziaren aurkako tratamendua jasotzen ari zen garaian ezagutu zuen Mari Searak Jordina Arnau, eta zer den bizitza: sendagiria jasota pozarren onkologikotik irten zen unean jakin zuen Jordinari bularreko minbizia diagnostikatu ziotela. 2019ko uztailaren 4a zen. Berarekin gelditu nahiko lukeela esanez hitzordu eske ari zitzaion laguna whatsapppe. Berrito minbizia, berriro eztarrian korapiloa. Gaixotu zenean berak falta izan zituen erreferente haien bila ari zen orain laguna. 28 urte bete berriak zituen Arnauk, eta lanpostua eta gainerako dena laga eta Kataluniatik Euskal Herrira bizitzera iritsi berria zen. Gaztea zen, familian ez zuen minbizia kasurik izan aurretik, eta horregatik seguraski, ginekologoak berak ere mamurikez ikusteko esan zion, bularrean gogortasun bat sentitu zuela esanez ikeratuta joan zitzaion lehen aldian, baina iritsi zen "hostiakoa". "Denbora galduarazten ari nintzaiola ere sentiarazi zidan, baina insistitu nuen eta biopsiaren emaitzekin batera iritsi zitzaidan gero danbatekoa.

Kaka eginda nengoen, izugarriko beldurra nion sufritzeari. Nik aukeratu ez nuen mundu baterako VIP sarrera jaso nuen, erusiar mendiaren itxura duen eta bizitza osoa aldatzen digun mundurakoa, eta eskutik heldu eta bere prozesua bizipenetatik kontatuko zidan norbait behar nuen, minbiziaren inguruan dena delako oso estereotipatua, denak dirudielako beltza, oso homogeneoa eta heriotzari oso lotua; beste diskurtso bat behar nuen", azaldu du Arnauk.

Minbizia inguratzen duten tabuak uxatuko zizkion norbait nahi zuen, kontatuko ziona bazekiena, minbizia marroi handia dela, baina esango ziona, baita ere, sarri isiltzen dena: minbizia duen bitartean pertsona hori bizirik dagoela, eta beraz, bizitzan egin dezakegun dena egin dezakeela: bizi, negar, barre, maitatu, desiratu... "Minbiziak hil daiteke, bai, eta tratamendua osogogorra da, baina zergatik mugatu behar gara gaixotasuna biktima paperean bizitzera? Nik ez nuen besteen errukiz bizi nahi; izango zen izan behar

zuen, baina bizirik nengoen eta bizi nahi nuen; eta hala egin nuen!", dio horren harira Searak. Pentsakera hori izateagatik minbiziak arinkeriaz hitz egitea leporatu dietenik ere izan dela aitortu du Arnauk, eta azpimarratu du: "Ez diogu garrantzirik kendu nahi ezzerri. Amorragarria eta gogorra da hau dena oso, eta errespetatzen ditugu, jakina, minbizia bizitzeko era guztiak, baina subjektu aktibo garena defendatzen dugu guk".

Diskurtso eta egiteko hori du Izan Iñurri elkarteak sorreratik. Julene Illarrendi, Miren Cuerdo eta Jone Zabala lasartearrek sortu zuten taldea, Illarrendiren ama [Eba Elexpuru] minbiziak hil eta bi urtera, eta Elexpuruk gorputzean tatuatuak zituen "inurri langileei" zor die elkarteak izena. Sortzaileek aitortua dute prententsio handirik gabe sortu zutela elkarteak, minbizia dutenen alde zerbait egiteko, eta hala hasi zirela kamisetak eta zapi solidarioak josten eta saltzen, dirua bildu eta dohaintzan emateko. Orain, "eklosioan" dago elkarteak. Iazko

Izaninurri.com webgunean ematen dute elkartearekin harremanetan jartzeko bidea, bai eta bazkide egin edo dohaintzak egiteko bidea ere. Instagramen ere badaude: @izaninurri

otsailean batu ziren talde eragileria Jordina Arnau eta Olatz Mercader, eta geroztik, antolatatu dituzte bertso-saio solidarioak, biluztu dira eta sortu dute egutegia, sortu dituzte podcastak Spotifyn [(MIN)Bizi euskaraz eta *Dragón Cáncer* gaztelaniaz], antolatatu dituzte formazio saioak eta arteterapia saioa, tematu dira dibulgazioan eta ikerketan, eta ehundu dute minbizia zuzenean edo zeharka bizi izan dutenen sare bat, elkarri entzuteko, elkar zaintzeko eta beren beharrei erantzuteko. Sortu dute "espazio libre, seguru eta konfiantzazkoa" minbizia normalizatzeko eta taburik gabe hitz egiteko. Eta egin eta egiten dute hori dena, ikuspegi feminista eta eraldatzaile batetik, osasuna ere, gizezkoen ikuspegitik aztertzen delako gaur, eta ondorioz, kontsultategian deseroso sentiarazi dituzten galderak eta erantzunak ere jaso dituztelako sarri.

Patriarkatuaren itzala

"Emakumeok programatuak izan gara gure gorputzak besteek ikusten eta sentitzen dituzten bezala ikusteko, guk nola sentitzen ditugun eta nola erabili nahi ditugun ikusteko baino gehiago", hasi du haria Searak. "Dena dago prestatuta ama izateko dugun eskubidea bermatzeko. Esterilizazioa eragiten du tratamenduak, baina hasieratik esaten dizute obuluak gordetzeko aukera dagoela. Desira sexualik izango dugun galdetzea, ordea, ekuaziotik kanpo gelditzen da. Ez dute halako galderarik espero gugarik eta ez da horren inguruan azalpenik ematen", gehitu du ondorengo Arnauk. Gaur-gaurkoz, bularrekoa da minbizirik zabalduena emakumezkoetan eta prostatakoa gizezkoetan, baina nabarmendu dute gizezkoen sexu beharrak asetzeko ikertu beharreko dena ikertu den arren, oraindik ez dela ikertu bularreko minbiziak zer eragin duen emakumeen sexualitatean. "Gurea garrantzirik gabeko kastrazio kimikoa da, gure gorputzak erreproduktzioarako eta besteen desirak asetzeko daudela uste baita", esan du Arnauk. Eta horregatik uste dute, adibidez, falta dituztela bular bakarreko pertsonen erreferentziak eta bihurtzen dela ilea erortzea benetako arazo askorentzat.

Erabili zuten ile-ordea Searak ere eta protesia jartzeko ebakuntza ere egin zioten bularra kendu ondoren. "Askotan, ematen du bularra berregitea zikloa ixteko ezinbesteko pausoa dela, baina ez da. Nik ere egin nuen saioa, baina ez nengoen gustura nire gorputzarekin, eta gorputzak berak ere ez zidan onartu protesia». Garbi dio emakumeoi inposatzen zaizkigun estereotipo estetikoek eragiten dutela halako erabakietan. "Bularra galtzea ez da beste gorputz atal bat galtzea bezalako, eta horri buruz hitz egin beharra dugu", zehaztu du. Estatu espainiarrean, urtero 16.000 mastektomia egiten dira, eta horietatik 4.800 kasutan ebakuntza egiten da bularra berregiteko. Nolanahi ere, badaude berreraiki ezin diren bularrak, bai eta aukera horri uko egiten dioten emakumeak ere. Beraz, urtean 11.200 bat *titibakar* gehiago dira, baina hala ere, "gorputz horiek biluzik erakustea iraultza egitea dela uste da oraindik eta batzuetan nahi ez lituzketen esaldiei erantzun behar izaten diete gure lagunek, 'egin ezazu senarragatik' eta halakoei". Iñurri argi dute minbizia ez dutela beraiek aukeratu, baina bidea nola bizi nahi duten aukeratzeko eskubide osoa dutela. "Kasu bakoitza kasu bat da, eta denak entzuteko eta ahal dugunean laguntzeko gaude gu, ez baitugu ahaztu behar gaixo egotea garestia dela", nabarmendu du Arnauk. Osasungintza publikoan jarri dute begia. Onkologikoan artatu zituzten biak, eta ez dute jasotako tratua kexarik. Oso profesional onak topatu zituzten han, eta "arreta gertukoa eta konfiantzazkoa" jaso zuten uneoro, baina tratamendu onkologikoaz gain, kimioterapia, radioterapia eta kirurgiaz gain alegia, beste tratamendu edo profesional batzuen laguntza ere behar izan dute -psikologoak, nutrizionistak...- eta hori dena arlo pribatuan bilatu behar izan dute. "Gaixotu nintzenezan langabezia-saria jasotzen ari nintzen,

baina hilean 300 euroekin gelditu nintzen. Ez neukan laguntzarik jasotzeko esku-biderik ere, ez neramatzalako hemen hiru urte erroldatuta. Hala ere, beste asko baino hobeto nengoen, inguruan dudak sareak mantendu ninduelako ekonomikoki eta bestela. Minbiziak bizitzako arlo guztietan eragiten du eta laguntza terapeutiko handia behar izaten dugu urte askoan, hau ez baita urtebeteko kontua askotan entzun behar izan dugun bezala", dio Arnauk. Patriarkatuaren itzalaz eta gaixotzearen biderkatzen diren desberdintasun sozialez ari dira solasaldian, gaixo guztiek ez baitute gaixoaldia modu berean eramateko ahalik. Osasungintza publikoaren "eskastea" ere aipatu dute: "Gure inurri lagunek nabarmen igarri dute, bereziki pandemiatik hona".

Horretarako osatu dute inurritegia. Emakumeak dira gaur-gaurkoz elkartearen bueltan dabilzanak eta ematen die horrek zer pentsatua, baina nabarmendu dute atea zabalik dutela batu nahi duenarentzat, "edozeinek duelako zer ekarria proiektura". Tribuaren indarra ezinbestekoa dutela diote, eta azpimarratu dute ez direla gerlari, askotan hala aurkeztu izan badituzte ere han-hemen. Bizitza tokatu zaiena onartu eta ahal duten eran bere egin dutela diote, eta oso barneratuta dute Izan Iñurri azpimarratzen duena: "Hobe besarkada eman bizitzari, energia borroka hutsaletan erabiltzeak ez duelako zentzurik". Ulertzen dute, hala ere, aldamenekoen eta inguruko asmatu ezina. "Minbizia izan dudak arren, neuri ere gertatu zait beste bati zer esan ez jakitea", aitortu du Arnauk, baina badute gomendio bat, Maider Estensoro inurrikidearen ahotan entzun daitekeena beren Facebookean. "Ez bota begirada errukitsurik. Ez badakizue zer esan, ez esan ezer. Eman besarkada bat edo laztan bat. Bidelagun izatea nahikoa da; egote hutsa".



URTARRILAK 28, LARUNBATA

-10:00. **Eskola Kiroleko Topaketa**, Aldats pilotalekuan.

-22:00. **Antzerkia: Intxaurra** (Mairu Antzerki Tailerra), Lasturren.

URTARRILAK 29, IGANDEA

-16:30. **Umeentzako film emanaldia: Zutik!**, Kultur Elkartean.

-19:00. **Helduentzako film emanaldia**, Debadezineren eskutik, Kultur Elkartean.

URTARRILAK 31, ASTEARTEA

-18:00. **Hitzaldia: Zer egin dezakegu gure nerabeek sexualitate aske eta osasuntsu bat izan dezaten?** (Eider Goiburua), Kultur Elkartean.

OTSAILAK 3, OSTIRALA

-18:00. **Santa Agedaren omenezko kalejira**, Debako Musika Eskolako haurrekin.

-18:00. **Pirritx, Porrotx eta Marimotots: Urteak bete, abenturak bizi**, Itziarko frontoian.

OTSAILAK 4, LARUNBATA

-08:30. **Santa eskea**, Itziarko plazatik hasi eta auzoz auzo egun osoan zehar.

-11:00. **Ekin berdea!** Deba ibaiaren alde, Debanaturaren eskutik, portutik abiatuta.

-21:30. **Kantu afaria**, Arrano Elkartean.

OTSAILAK 5, IGANDEA

-19:00. **Helduentzako film emanaldia**, Debadezineren eskutik, Kultur Elkartean.

OTSAILAK 6, ASTELEHENA

-12:00. **Pentsiodunen mobilizazioa**, plazan.

OTSAILAK 10, OSTIRALA

-16:30-20:30. **Odol emate saioa**, Luzaro ikastetxean. *Txandak otsailaren 6tik aurrera.*

-22:00. **Kontzertua: Aitor Huergo**, Itziarren.

OTSAILAK 11, LARUNBATA

-19:00. **Kaldereroak**, kalez kale.

-22:00. **Kontzertuak: Pleura eta Lukiek**, Gaztetxean.

OTSAILAK 12, IGANDEA

-17:30. **Mireia Delgado ipuin kontalaria**, Ispiluen gelan.

-19:00. **Helduentzako film emanaldia**, Debadezineren eskutik, Kultur Elkartean.

OTSAILAK 17, OSTIRALA

-16:30. **Merendola eta mozorro show-a**, Itziarko frontoian.

OTSAILAK 18, LARUNBATA

-**Inauteriak**. Egitarau berezia antolatuko da.

OTSAILAK 19, IGANDEA

-19:00. **Helduentzako film emanaldia**, Debadezineren eskutik, Kultur Elkartean.

OTSAILAK 20, ASTELEHENA

-12:00. **Pentsiodunen mobilizazioa**, Foruen plazan.

OTSAILAK 21, ASTEARTEA

-16:00. **Egur-jolasak**, Itziarko frontoian.

-17:00. **Mozorro show-a**, Aldats pilotalekuan.

OTSAILAK 24, OSTIRALA

-22:00. **Kontzertua: Meteo** (Miren Narbaiza eta Itziar Garaluce), Kultur Elkartean.

OTSAILAK 25, LARUNBATA

-16:30. **Euskal Herriko Mus Txapelketako Debako kanporaketa**, Arrano Elkartean.

Kaldereroak



Otsailaren 11n (larunbatean) irtengo dira aurretik Kaldereroak. Agirre jauregiko plazan elkartuko dira 19:00etan, eta 19:30etik aurrera kalez kale ibiliko dira. Hitzordua prestatzeko entseguak urtarriaren 28an eta otsailaren 4an egingo dira, 11:00etan, Ifar kaleko Luzaro ikastetxean. Entseguak irekiak dira, desfilean parte hartu nahi duten guztientzat; dena den, entsegurik egin gabe ere har daiteke parte ekimenean.

Inauteriak



Otsailaren 18an ospatuko dira aurtengo Inauteriak. Bezperan, hilaren 17an, 18:30ean haurrentzako pista-jolasa egingo da, Kolore Anitzen ekimenez. Eta, biharamunean, egitarau zabala izango da: 12:30ean, mozorro desfilea, Debako Musika Bandarekin (bertan aterako diren argazkiak mozorro lehiaketarako baliatuko dira); 17:30ean, gaztetxoentzako ikuskizuna; 19:30ean, txaranga; 20:00etan, mozorro lehiaketako sari banaketa.

ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Burgoa Zuazo: otsailak 10, 11, 12, 20, 21, 22, 23.
Zalduegi: urtarrilak 27, 28, 29. / otsailak 6, 7, 8, 9.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik.
Toribio Etxebarria, 4 - 943 20 23 44

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI | 669 262 201
BURGOA ZUAZO | 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

BURGOA ZUAZO: otsailak 4 eta 11
ZALDUEGI: urtarrilak 28 / otsailak 18 eta 25

Deba
Hortz klinika

Hondartza Kalea, 20 info@debaklinika.com
20820 Deba, Gipuzkoa **T. 943 19 28 19**

Odontologia orokorra
Kirurgia
Inplanteak
Ortodontzia tradizionala
Invisalign ortodontzia (Ikusezina)
Haurren odontologia

* Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.

Mikel ITURGINTZA

- GASA
- BEROKUNTZA
- ENERGI TERMIKO
- ETA BERRIZTAGARRIAK



Hondartza 10 behea,
20820 Deba
T. 943 191 774
M. 699 975 206
info@mikeliturgintza.eus

ALBIZU

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

A D

ASESORIA DEBA

Kontabilitatea- Nominak -
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com

Hondartza 2, behea
20820- DEBA (GIPUZKOA)

adats

ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA
Hondartza kalea 13 DEBA
T. 943 19 27 00

ADATS ILEAPAINDEGIAK MUTRIKU
Behoko plaza 1 MUTRIKU
T. 943 60 39 45

www.facebook.com/adatsileak
@adatsileak

Taxi Alain Deba

LIZ.-ZK.: 3

www.taxideba.eus

636 135 008
alain@taxideba.eus

Seven Clovers

Irish pub

943 191 295

ITURLAN, S.L.

Iturgintza-Berogailuak

Mogel kalea, 1 - Behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tfno. Mugikorra: 635 717 732
Tfnoa - Fax: 943 192 553
fontaneriaiturlan@iturlan.com



Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tfnoa.: 943 191 095



sasoiko

ekoenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:


- * Fisioterapia: tekarterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com

GENOVEVA

Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



Uzuri

optika audio

PILARIK GABEKO AUDIFONOAK PROBATU HILABETEZ DOAN

Ostolaza kalea 7,
20820 Deba
Tel: 943 19 21 92

RPS: 183/12





DEBA | Bulego berria

Maxpe kalea, 7 behea ☎ 943 19 21 06

EIBAR | Zezenbide, 4 behea ☎ 943 20 70 02

📷 asesoriagestilan

🌐 gestilan.es

✉ gestilan@gestilan.es

Kolore Anitz Aisialdi Taldeak

udalekuetako koordinatzailea behar du

Bidali zure curriculuma ondorengo helbidera:

koloreanitz@gmail.com



Zuhaitza
deba

**euskara
elkartea**

📷 @koloreanitz

📘 Kolore Anitz